

vocalia  
abesbatza

D eredu  
naturala

josu feijoo  
mendizalea

sorkun, onna

inmigrazio zuzendaria

# boladji omer oke

literatura. iban zaldua. historia. txema flores. jesus obrero ikastetxea.  
arte. musika. bidaiak. sukaldaritza. denbora-pasak...





GAZTELAKO ATEA, 101  
01007 GASTEIZ  
Tel. 945 14 54 45  
e-mail: armentia@ikastola.net  
Fax. 945 13 96 21

## HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA, DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

- Bi urtetik aurrera, kalitateko hezkuntza proiektu integral eta euskalduna
- Ikasle bakoitzaren jarraipen zuzena

-Eleaniztasuna.

Ingelesa 4 urtetik aurrera

-Janqela eta autobusa

-Familientzako ekintzak eta ikastorduz kanpokoak



tokieder ikastola  
GASTEIZ

# Tokieder Ikastola

## D eredua


### Kalitatezko hezkuntza euskaldun eta integrala

Jantokia, ingelera 4  
urtetik aurrera,  
ekintza osagarriak,  
informatika gela,  
sikomotrizitatea,  
guraso eskola

### 2003-2004 ikasturterako izen-ematea otsailean

Wellingtongo Dukearen kalea 6,  
Lakua 01010 Gasteiz  
Telef/faxa: 945 171210  
tokieder@euskalnet.net





8-11.  
orr.

**INMIGRAZIO ZUZENDARIA**  
boladji omer bertin oke

**JESUS OBRERO IKASTETXEA:**  
kalitate saria



12-13.  
orr.



16-17.  
orr.

**D EREDU NATURALA:**  
aranzabela, ikas-  
bidea, abendaño...,  
eta aurren toki eder  
ere bai!



18-19.  
orr.

**VOCALIA ABESBATZA,**  
basilio astulez zuzen-  
dariaren eskutik



20-21.  
orr.

**JOSU FEIJOO MENDIZALEA:**  
"bizkaia 2002-2003: hego  
poloa" espedizioa

## GAINERA...

• **Han-hemenka** (4-7. orr.):

Irizian, mikel urdangarin eta lurra; kaleak  
dio; araba bixotzian; entzun, irakurri, ikusi,  
izena eta zenbakia.

• **Euskaltasunean lagun** (15. orr.): dorleta  
varona pelegin

• **KulturAisialdiari so** (22-35. orr.):

**AGENDA** (22-23); **IDAZLEEN GURPILA III**-iban  
zaldua: "bikien kluba" (24-25); **HISTORIA ZER-  
TZELADAK**-txema flores: kartzelak eta kon-  
tzentrazio-esparruak 1936an arabar (26-  
27); **ARTE TXOKOA**- sorkun abeslaria: onna  
(28-29); **naturaren isladak**; bidaia (30); **sukal-  
daritza** (31); **denbora-pasa**; **komikia**; **geu-ren  
eskaintza**, gomendioa...

**>GEU**

**GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)**  
Geu aldizkari taldeak egin, bideratua eta kudeatua  
**Erredakzioa:** Pedro Asua, 2-3.a.

**Tfnoa. eta Faxe:** 945 22 21 53 • **e-mail:** geugaste@grn.es

**Zuzendaria:** estitxu breñas glz. de zarate  
**Aldizkari batzordea:** josune velez de mendizabal, edorta sanz, edume  
begiristain, estitxu breñas eta  
david alvez

**Kazetariak:** leire lpz. de aberasturi, edume begiristain,  
josune velez de mendizabal

**Argazkiak:** edorta sanz/ kolaboratzailea: galder izagirre  
e.b.z.

**Bestelako irudiak-bilaketa:**

**Testuen orrazketa-zuzenketa-**

**osaketak:**

**Maketa:** patirke sanz eta david alvez

**logoa:** io grafix

**komikia:** iñigo sarasola

**Kolaboratzaileak:** iñaki zorrakin, abarrots, mikel urdangarin, lurra, iban  
zaldua, txema flores, argazki elkarte, gamarra  
ostalaritza eskola, xabier errasti 'jerras', ania ibisate,  
oskar ugarte eta luma aldizkaria

**Publizitatea eta Banaketa:** edume begiristain

**Sustapen-harpidetza saila:** edume begiristain, e.b.z.,


**Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

**Ale kopurua:** 2.500

**LG:** VI-582/92 - **ISSN:** 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egin dago. Geu  
aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



## Azala ...

Argazkia: edorta sanz



"Etorkina ez da etsaia, globalizazioaren  
biktima baizik",  
diosku otsaileko  
alearen azaleko  
protagonista dugun  
inmigratio saileko  
zuzendari boladji  
omer bertin oke-k.  
Eta honakoa dugu  
hasiera batean  
prestaturikoa..."







**mikel urdangarin**

**kantautorea**

## poza

**A**tsegin ditut neguko paseoak Gasteiztik. Batez ere Armentiaruntz noanean, bakarrik zein lagunduta. Bazkaloste astunak arintzen dizkidate. Atsegin ditut osteratxoak zerua oskarbi denean, elurrak utzitako haize hotzak birikiak garbitzen dizkidala sentiarazten didanean. Neguan, bihotza baretzen zaidanaren ustea daukat, lotan bailagoan.

Orain dela bi aste Armentiatik paseatzen genbiltzan, jubilatuen artean nahastuta, lagun bat eta biok. Laguna bereziki pozik zegoen eta halaxe gogorarazten zidan hamar bat pauso egin bakoitzero -pozik nago Mikel, pozik!, irrifarra aurpegian eta diztira begietan. Nik ere baikor antzean erantzuten nion baina sinismen gutxiz eta inoiz ez bera bezain gartsu. Izan ere, egun txarra baineukan, tristura zentzugabe bat

zebilkidan barrenean joka. Kontua da lagunak -pozik nago Mikel, pozik!, esaten zidan bakoitzean, ni geroz eta tristeago, makalago sentitzen nintzela. Saiatu nintzen bai, bere bizi-pozaz kutsatzen, ezinezkoa baina: arratsalde argitsu hartako osteratxo amaitezina burutu ordurako, lagunaren zoriontasun errepikakorrak guttiz lur jota utzi ninduen.

Norbera ondo, sendo ez dagoenean, zaila egiten da ondokoren egoera onaz pozten. Norbera langabezian egonda, zelan poztu ondokaren lan baldintza on eta soldata mardulaz. Zelan poztu lagunak neskekin duen arrakastaz, norberak urtetan zehar basamortu latza baino ez duenean ezagutu. Kontua ez da erraza.

Ez gaituzte hezitu lagunaren ongizateaz poztu gaitezen, ez bada gu hura bezain ondo

sentitzearen, izatearen ordainetan. Ez nuke baina, errazkerian erori nahi. Badakit jakin, lehenbizi nork bere burua behar duela maite ondoren auzoa maite ahal izateko. Susmoa daukat baina, norbanakoaren garrantziak, lehiakortasun senak maitatzeko gaitasuna mugatu, begiak estali eta bihotza hoztu digula.

Horregaitik pozten naiz hainbeste, bizitzan gauzak hain ondo ez dihoazkion lagunak niganako poza zintzo agertzen didanean. Eskuzabal. Horra hor adiskidetasunaren neurgailu on bat.

Bart gauetz, hiru lagunok txotx egin dugu Aramaioko sagardotegi batean. Hiruroi bizitzan gauzak, oro har, ondo dihoazkigu. Bata bestearengandik pozteko gairara. Sinismena badut, egoera bestelakoa babiliz, modu berean jokatu genukeela. Baietz uste dut.





## Lurra

GURE AMAREN ETXEA  
DEFENDATZEKO DEIALDIA

### beste txapoterik, ez

**P**RESTIGERen hondamendia bezalako katastrofeak gizartearen presioarekin eta herri-mobilizazioarekin baino ezin direla ekiditu uste du Lurra Deialdiak. Hedabideen bonbardaketak eragindako lausoarekin erreallitate birtuala sortu dela aintzat hartuta, aspalditik dakigu ondorioez bakarrik hitz egiten badugu, Prestigerekin sortutako hondamendien antzekoak errepikatuko direla, behin eta berriz. Alabaina, benetako arrazoietara jotzen baldin badugu, hots, garapen ereduari eta, bereziki energia ereduari aurre egiten badiogu, **BESTE INOIZ EZ** leloa erreallitate bihurtuko dugu.

Prestigeren hondamendiaren erantzuleek izen-abizenak dituzte; baina errudunek, tamalez, ez dute sekula ordaintzen. Espainiako estatuko politikarien agendetan ez omen da dimisio hitza agertzen. Horregatik erantzukizunak zuritzea eskatzen dugu.

PPren gobernuak badu erantzukizunik. Prestige itsasoan hondoratu zuten moduan, euren kaka alfonbraren azpian ezkutatzen saiatu diren horien nahia da hedabideek euren erruak garbitzea, eta borreroak biktima bilakatu nahi izan dituzte. Baina, oraingoan, haizearen kontra ttua bota dute, eta euren aurpegiak txapapotez zikindu dituzte.

Petrolio industriak erantzukizun zuzena dauka. Petrolio industriaren interesen erruz Golkoko guda, Afganistangoa eta Iraken inbasioa eragin dute, eta Venezuela bezalako herrialdeen gobernua desegonkortasunera eraman dute. Energia eredu sistema ekonomiko kapitalistaren gainbe-

heraren adierazle argia dugu: ez da gai gizadiaren hiru laurdenei energia eramateko, klima aldaketaren eragile nagusia da, gure ingurumenaren erasotzailea da, eta hala eta guztiz ere energia iturri ekonomiko gisa saldu nahi digute, bere kostuak kanporatu eta gizarteari kaltearen faktura pasatuz...

Nazioarteko erakundeen erantzukizuna ere salatu behar dugu. Nazio Batuen Erakundea eta Europako Batasuna -legeak betearazteko luzapenak eginez eta trikimailuak erabiliz- titere huts bilakatu dira, etekinak lortu nahi duen gutxiengo baten interes ziztrinen gatibuak.

Gaur, inoiz baino garrantzitsuagoa da kapitalismo basatiari stop esatea, nahikoa da! esatea. Sistema genozida baten konplizeak izan nahi ez dugulako, globalizazioaren garaian mundu osoan petrolio saldu nahi duten petrolio-enpresen konplizeak izan nahi ez dugulako. Baina, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko zein Espainiako gobernuek zera erantzutea nahi dugulako: ea euren zainetatik doan odola fuela bezain beltza eta galipota bezain toxikoa den, eta hegaztiak zein arrainak bezain pozoinduta duten.

Inpunitatea, hipokresia eta konplizitatearen aurrean LURRAk antolatze-ko deia luzatu nahi dizue. Gure herrian dauden energia sortzaileak aska daitezten, elkarguneak bilatzeko deia egiten dizuegu, inposatu nahi diguten etorkizun beltza bainoago, bestelako etorkizuna nahi dugulako. Gure itsasoa defenda dezagun. Amalurra defenda dezagun.



## IRAKURTZEKO OHITURARIK BAI?

Ez dago aitzakiarik. Gaur egun denok dakigu irakurtzen. Baina hala eta guztiz ere badirudi geroz eta guxtiago irakurtzen dela. Gazteenek eskolan derrigortzen zaizkien liburuak irakurtzeko baino ez dute betarik; eta nagusiagoek normalean irratia zein telebista piztea dute atsegingarriago. Badaude, noski, irakurtzea oso atsegin dutenak, edozein txokotan zein unetan liburu bat esku artean. Bestetik, hor dago egunkari eta aldizkarien aukera. Irakurtzeko ohituren inguruan galdetzeko irten gara kalera oraingo honetan. Hona hemen jaso duguna:

1.- Irakurtzeko ohiturarik ba al duzu?

2.- Zein da irakurtzen diharduzun liburua edota irakurritako azkena?



ARANTXA,  
taberna zerbitzaria

1. Bai, beti izan ohi dut libururen bat esku artean. Une atsegingarriak dira.

2. "La sultana" ari naiz irakurtzen. Normalean eleberriak irakurtzen ditut. Horiexek ditut gustuko.

MIKEL MUZAS,  
tabernaria

1. Ez, egia esan ez dut gustuko.  
2. Ez dut liburuak irakurtzeko ohiturarik. Egunkaria edo aldizkariren bat hartzen dut eskutan noizean behin.



JUAN MARI GOENAGA,  
administraria

1. Egunero-egunero egunkaria erosi eta irakurtzen dut.

2. Orain bat ere ez. Atseginen ditudanak literatur klasikoa eta abenturazkoak dira.



UNAI URIARTE, kazetaria



1. Bai, nobela historikoa eta biografiak batez ere ditut atsegin.

2. Orain momentuan ez nabil ezer berezia irakurtzen. Irakurri berri dudana, Mao Tse-Tung-en biografia izan da.

## Izena

## eneko etxebarrieta



Eneko Etxebarrietaren filma-emanaldiak eman zion amaiera urtarilaren 14an Geu aldizkaria eta Geu elkartearen 10. Urteurreneko programari. Lagun ugari bildu zen Parral tabernan Eneko munduan zehar txirringaz egindako 4 urteko bidaiaren nondik norakoak ezagutzeko irrikan: irudiz irudi Vietnamera iritsi ginen bertaraturakook, ondoren Iguazu ibaiko urjauzi miresgarriek saioari agur esan ziotelarik. Galderen tartea ere interesgarri suertatu zen.



argazkiak: edorta sanz

zkia

40.000

lagun bizi dira Lakua auzoan dagoeneko.



# Entzun/Irakurri/Ikusi

## Ikusi

## 10 MEZU ETA DEI 1

Gauekoak-ek Geu elkartaren eskutik urtarilaren 9an aurkeztu '10 mezu eta dei 1' saioak sekulako arrakasta izan zuen, antzokia topera betetzeraino. Txoko honetatik, zorionak Patxi Zubizarreta, Unax Ugalde, Mikel Urdangarin eta Koldo Uriarteri eskainitako soinu eta hitz xarmangarriengatik, bildutakooi une bikaina oparitu izanagatik. Ideia, istorioa, planteamendua eta eszenaratzea, txalogarria. Edonon errepikatzeke modukoa!



argazkia: edorta sanz

## Irakurri

Hauexek dira 2002ko Euskadi Literatura sarietako irabazleak: euskarazko literaturan, "% 100 Basque" (Itxaro Borda. Susa argitaletxea); gaztelaniazko literaturan, "Pobeñeses" (Miguel Gonzalez San Martin. Bassarai); haur eta gazte literaturan, "Itsaslabarreko etxea" (Miren Agur Meabe. Aizkorri); eta, azkenik, literatura itzulpen onena, "Harry Potter eta sekretuen ganbera" (Joanne K. Rowling. Itzultzailea: Iñaki Mendiguren. Elkarlanean).

(Eusko Jaurilaritzak argitaratu koadernoan-2002)



dagoen sailkapena!

## Entzun

Honakoak dira Euskadi Gaztea-ko 'top gaztea' saioan lehenengo hiru postuetan sailkatu 3 kantuek: lehena, "Zure begirada batek", ILUNABAR taldearena, 87 punturekin; bigarrena, "Zu", SEIURTE taldearena, 41 punturekin; eta hirugarrena, "Musturrek sartunde", GATIBU taldearena, 29 punturekin.


Ea aldizkaria etxetara heldu orduko zelan

(Euskadi Gaztea, 2003ko urtarilak 26)

## Araba bixotzian







# boladji omer bertin oke

EUSKO JAURLARITZAKO INMIGRAZIO ZUZENDARIA

“Etorkina ez da etsaia,  
globalizazioaren biktima baizik”

*leire Ipz de aberasturi  
argazkiak: edorta sanz*

**A**urten, lehenengo aldiz, Zuzendaritzak berak egindako aurrekontua duzue.

Iaz garai honetan Zuzendaritza sortu gabe zegoen oraindik, baina orain arte lan egin dugun aurrekontua ez zen inposatua, Departamentuak egindako proposamena izan zelako. Baina bai, aurten guk geuk egiteko aukera izan dugu.

-Zuzendaritzaren sorrera nahiko polemikoa izan zen, eskuduntzarik, eta beraz mamirik gabeko zerbait zela esaten zelako. Oztopo hori gainditu al da?

Egia esan, beti jakin dugu zeintzuk diren gure eskuduntza eta zeintzuk Gobernu zentralarenak. Madrilgo Gobernuak eskuduntza eksklusiboak dituela egia da, baina batez ere etorkinen eskubide eta betebeharrak finkatzen dituzten arloetan. Hau da, lurraldean nola sartu eta egon behar duten esateko orduan.

Hortik aparte, etorkinak integratzeko prozesu guztia erkidego autonomoen esku dago, beraienak direlako hiritarren eguneroko bizitzari dagozkion eskudun-



tzak. Beraz, ezin daiteke esan Estatuko administrazioak bere esku dituela eskuduntza guztiak.

**-Ba al dago Estatuan zuk zuzentzen duzun bezalako saila duen Gobernu autonomikorik?**

Nik dakidala, Madrilen Inmigrazio eta Kooperazio Zuzendaritza dago. Ez dut uste besterik dagoenik.

**-Urte hasieran, beti bezala, Estatuan sar daitezkeen etorkinen kopurua finkatzen da. Kopuru hori finkatzeko momentuan zuek zer esanik ba al duzue?**

Legeak proposamenak egiteko gaitasuna aitortzen digu, baina Madrilek dauka azken hitza. Aurten EAEko Gobernuak 711 hartzeko proposamena egin du, baina azken kopurua askoz ere murriztagoa izan da.

**-Zer-nolako inmigrazioa etortzen da gurerara?**

Gehienbat ekonomikoa, baina ekonomia eta politika nahastu egiten dira. Batzuk arazo politikoak bultzatuta irteten dira beren jaioteritik, eta egoera politiko horrek bere ekonomian eragin larria izaten du. Eta alderantzizko kasuak ere badaude, boterean diktadore bat dagoen herrietatik arazo ekonomikoak dituztenak etortzen dira eta ez derrigor errepresiotik ihesi.

**-Eta nondik datoz?**

Hegoamerikatik gehienbat.

**-Zeintzuk dira etortzen direnen behar larrienak?**

Aholkularitza ezinbestekoa dute, eta etxebizitza eta lana oinarritzeko beharrak dira guztientzat. Baina hori guztia lortzeko eta gizarteratze prozesuan murgiltzeko dokumentazioa beharrezkoa da. Paperak izateak edo ez pertsonen integratze prozesua baldintzatzen du.

**"Paperak izateak edo ez pertsonen integratze prozesua baldintzatzen du"**

Horregatik, Abokatuen elkargoarekin hitzarmen bat sinatu dugu paperak lortzeko ahalegin horretan daudenei laguntzeko, inmigrazioa legezkoa izatea nahi badugu dokumentazioa eskatzen duten etorkinen egoera erregulartzetik hasi behar dugulako.

**-Eta nola hartzen ditugu hemen etorkinak?**

Denetarik egoten da gizarte guztietan. Gobernuak eta Gobernuak Kanpoko Erakundeek horien etorrera ahalik eta duinen izan dadin lanean dihardute. Norberak bere bizi-proiektua egoera duin batean gauza dezan eginahala egiten ari gara; horrela euskal gizartearen garapen eta erakuntzan lan egin eta parte hartu ahal izango dute etorkinek.

**-Gobernuak Kanpoko Erakundeekin eta gizarte eragileekin lan egiten duzue, beraz?**

Bai, arlo honetan ari diren elkarte guztiekin. Elkarleen proposamenak guregana iristea nahi dugu, erakundeetatik ematen ditugun zerbitzuak guztion artean hobetzeko.

**-Gure inguruarekin konparatuta Araban, eta Gasteizen, etorkin gutxi al dago?**

Alderaketak ez dira onak. Kontrakoa dirudien arren, adibidez Andaluzian ere ez dago askorik, hiritarren % 3 gutxi gora-behera. Dena dela, aitortu behar da zonalde batzuetan ez dagoela batere, eta beste batzuetan bada goela kontutan hartzeko bezalako kopurua.

**-Arabian, eta oro har Euskal Herrian, ez dira oso ohi-koak Andaluzia edo Extremaduran sarri entzuten diren bezalako istiluak, nahiz eta egon diren. Zergatik, etorki-**




**KID**

**APAINDURA**

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ





**nak hobeto hartzen ditugulako edo etorkin gutxiago daudelako?**

Egia da gutxiago daudela, baina kontzientziario maila bat dagoela ere kontuan izan behar da. Nolanahi ere, istiluak sortu arte itxoitea ez da ideia ona; gure apustua horrelakorik inoiz ez gertatzeko lan egitea da, baita noizbait etorkin asko badaude ere. Ezberdinen arteko elkarbizitza natural bat lortzea da helburua, eta horretarako bertan jaioetakoekin eta etorkinekin lan egin behar dugu, guztiak hiritar senti eta esparru berean arazorik gabe bizi gaitezen.

**-Ba al dago apurtu beharko litzatekeen etorkinei buruzko topikorik?**

Askok. Etorkinen kopurua ez da oso altua, baina bai esanguratsua, eta gizarte honen parte dira dagoeneko, horregatik oso kezagarriak dira Estatuko administrazioak igortzen dituen mezuak. Inmigrazio politika eraginkor bat egiteko ezintasuna eta sormen falta gizartearen parte bat kriminalizatuz ezkututzen du Gobernu zentralak. Eta etorkinak lana kentzen duela esatea ere ez da zilegi; arretaz begiratzen



baduzu ikusiko duzu zahar askok etorkin bat dutela alboan, bestela zahar-etxe batean egongo lirateke, eta lan egiten duten aita-ama askok ere etorkin batekin uzten dituzte seme-alabak. Etorkinak ere gizartea eraikitzen ari direla kontuan eduki behar dugu. Begiratu bestela hiritarren hazkunderari, belaunaldiaren erreleboa zalantzan dago. Inmigrazioa ona da etorkinarentzat, baina baita harrera herriarentzat ere.


#### -Lanarena da agian gairik eztabaidatsuen?

Baliteke, baina etorkinak bertakoei lana kentzen diela esaten denean ez da egia, begiratu bestela non lan egiten duten kanpotik etortzen direnek. Baina gainera arazoa ez da hori, etorkina etortzerik ere ez da beharrezkoa kapitala bere bila doalako. Eta horixe da kriminalizatu beharko genukeena, kapitalak mugitzeko duen gaitasuna; lantegi bat kentzen dutenean ez dute aldameneko herrira eramaten, baizik eta eskulan merkea duten herrietara. Gure artean borrokan aritu baino-ago batu eta kapitalaren aurka zer egin dezakegun ikusi beharko genuke. Nik argi daukat etorkina ez dela etsaia, globalizazioaren biktima baizik.

#### 2003RAKO PROIEKTUAK:

- Harrera sarea indartu. Etorkin asko duten herri eta hiriek harrera plangintza zehatza izatea lortu nahi da.
- EHUrekin batera Inmigrazioaren Behatokia martxan jarri.
- Inmigrazioaren Euskal Foroa sortu.
- Inmigrazioaren Plan Estrategikoa sortu eta martxan jartzea. Horixe da aurtengo asmo nagusi eta garrantzitsuena.
- Interkulturalitatearen euskal astea ospatu, arlo horretan lan egiten duten erakunde, talde eta gizabanako guztiekin.

"Inmigrazioa  
ona da  
etorkinarentzat,  
baina baita harrera-  
herriarentzat ere".



#### bolajdi omer bertin oke

Ezker Batuak, Lakuako Gobernuan sartzean, Inmigrazio Zuzendaritza sortu behar zuela azaldu zuenean, bi kritika nagusi jaso zituen. Mamirik gabeko arloa izango zela, eskuduntza gehienak Madrilgo Gobernuaren esku daudela, eta irudi kanpaina hutsa egitea, afrikar bat jarri zuelako Zuzendaritzaren buru. Urtebete pasatu ez denean, Zuzendaritzak bere lekua aurkitu duela dirudi eta Eusko Jaurlaritzak zuzendari afrikar bat izateak albiste izateari utzi dio.

Bolajdi Omer Bertin Oke, Beninen (Afrika; Nigeria, Niger, Togorekin... ditu mugak) sortu zen duela 36 urte. San Fermin egun batean iritsi zen Euskal Herrira, 1994ko uztailaren 7an. Euskal Herriko Unibertsitatean Publizitatea ikasi zuen eta Nazioarteko Harremanei buruzko masterra egin zuen, tesia egitea falta du.

EBko aspaldiko afiliatua, Mugarik Gabe eta Caritas-en lan egin du.

#### Zenbakiak

Gasteizen 5.350 etorkin dago, izena emanda eta arauzko egoeran.

Erroldaren datuek Araban 7.774 etorkin dagoela diote (gehienak Gasteizen).

#### Jaioterria

|                     |       |                   |     |
|---------------------|-------|-------------------|-----|
| Europar Batasunetik | 1.412 | Ipar Amerika      | 55  |
| Europa              | 329   | Asia              | 355 |
| Afrika              | 1.464 | Ozeania           | 4   |
| Hegoamerika         | 1.726 | Herririk gabekoak | 1   |

Datuak ez dira oso fidagarriak, Gasteizen izena emanda egon arren beste nonbait bizi daitezkeelako eta dokumentaziorik gabe bizi direnak zenbat diren jakitea zaila delako. Hala ere, pista bat dago: dokumentazioa dutenak 5.350 badira eta erroldan agertzen direnak ia 8.000, gurean egoera irregularrean 2.500 lagun inguru daudela esan daiteke.



# JESUS OBRERO:

ikastetxea

## KALITATEZKO PRESTAKUNTZARI SARIA



testua: edurne begiristain

argazkiak: edorta sanz

Jose Antonio Tricio, zuzendaria

**Jesus Obrero**  
Gasteizko ikastetxeak Euskalit-ek ematen dituen kalitate sarien Zilarrezko Qa jaso berri du. Europan eredugarria den kalitate sistema irizpide hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-ei ematen zaien sari ospetsua da Jesus Obrero-k abenduan eskuratu zuena. Sari horren bitartez, ikastetxeak eskaintzen duen formakuntza kalitate handikoa dela nabarmendu nahi izan da.

**A**raban kalitate saria lortu duen ikastetxe bakarra da Gasteizko Jesus Obrero. Kudeaketaren kalitate maila altuari merezitako saria eman zioten abenduan, EFQM (Europe Foundation Quality Management) izeneko irizpideei jarraiki. Eredu horrek enpresa baten funtzionamendu egokirako hainbat jarraibide finkatzen ditu, eragile, bitarteko eta emaitzak kontuan hartzen dituenak. Jesus Obrero-k baldintza horiek guztiak aise gainditu ditu, eta saria eskuratzeko beharrezkoak diren 400 puntuak erdietsi ditu, Zilarrezko Qa eskuratzuz.

Ikastetxearen funtzionamendua ebaluatzerakoan, balizko bezeroei begira egiten den lana aztertu du Euskalit-ek. Horretarako, Jesus Obrero-k dituen formazio prozesuak, bitartekoen hornidura, instalakuntza eta ekipoen zein pertsonen kudeaketa hartu ditu kontuan.





Baina ez hori bakarrik, kudeaketa horrek guztiak gizartean zein bezeroengan dituen emaitzak ere aintzat hartu baitira saria emateko orduan.

Jose Antonio Tricio Jesus Obrero-ko zuzendariak GEUri aitortu dio saria jasotzea espero zutela, urtetako lanaren emaitza baita eta horrek "izugarritzko ahalegina eta dokumentazioa eskatzen duelako". Saria eskuratu izanari oso baliagarria deritzó Jose Antoniok, ikastetxean ongi funtzionatzen duten gauzak eta ez hain ongi doazenak zeintzuk diren ohartzeko parada ematen baitu. "Erakundeetarako oso inportantea da halako sariak lortzea, hobetzeko arrastoa ematen dizulako. Finean, erakunde guztien xedea da etengabeko hobekuntza bermatzea", dio. Jesus Obrero-ren lana aitortu izana balio handikoa dela uste du, "erakunde bezala jarritako helburuei modu egoki batean erantzuten ari gatzazkiela nabarmentzen baitu".

## Mende erdia baino gehiago lanerako prestatzen

Jesus Obrero-k orain jaso duen

kalitate saria, azken 57 urteetako lanaren eta ahaleginaren laburpena dela esan daiteke. 1946an sortu zenetik, garapen itzela izan du Gasteizen jada erreferentzia bilakatu den ikastetxe honek. Jose Antonio Triciok epe berezi bat nabarmendu du Jesus Obrero-ren bizitzan: 1965. urtea. Data horretan Jesus Obrero Fundazioa sortu zen, Gotzaingoak, Arabako Aurrezki Kutxak, Udalak eta Diputazioak emandako laguntzari esker. Lau erakundeok Fundazioa eratu zuten, ikastetxearen egitura eta norabidea sendotuz.

Ordutik aurrera, eta urte haue-tan guztietan ikastetxeak izan duen zeregin nagusia industria giroan sumatu beharriaz erantzuna ematea izan da. Triciok azaldu digunez, Gasteizetik industria mailan izan duen gorakada neurri batean hirian aurkitu duen hezkuntza sistemagatik eta formakuntzagatik izan da, eta hor koka-tzen da Jesus Obrero-ren zeregina.

## Ikasleen % 90k lana aurkitzen du

Illo horretatik, lan merkatuan enplegua aurkitzen duten ikastetxe-ko ikasleak asko direla nabarmendu du Jesus Obrero-ko zuzendariak. Duela zazpi urte egindako azterketa baten arabera, Gasteizko enpresa txiki eta

ertainen % 60ren buru edo jabeak Jesus Obrero-ko ikasle izandakoak ziren. Eta azken urteetan zenbakiak bide beretik joan dira, Langai-k hiru hilabetetan behin kaleratzen dituen datuei erreparatzen badiegu, behinik behin. Jesus Obrero-n ikasi eta enpresetan praktikak egiten egon diren ikasleen % 90k lana aurkitzen duela dio Langaik. Hala, Mekanika eta Elektrizitateko ikasleen %100ak lana aurkitzen du, eta ikasketak amaitu aurretik enpresek "eraman" egiten dituzte-la dio Jose Antoniok. Antzeko datuak daude elektronika arloan, ikasle gutxiak izena ematen badute ere, eskaera handia baitago kalean eta honetan ere ikasleen % 100ak lana topatzen du.

Horrenbestez, datuok argiki erakusten dute Jesus Obrero aukatzen duenak lana eta prestakuntza aldetik etorkizuna neurri handi batean bermatuta duela. Eskaintza, gainera, zabala eta denetarikoa da: DBH eta Batxilergoa, batetik, eta zikloak bestetik (Mekanika, Elektrizitatea eta Elektronika, Kimika, Administrazioa eta Finantzak, Erizaintza...). Horietan guztietan euskaraz ikasteko parada dago, B eta D ereduak aukeran baitaude. Izan ere, Jesus Obrero-k gure hizkuntza sustatu eta bultzatzeko lanean dihardu, euskarazko kalitatezko heziketa bermatze aldera.

(Publi-erreportajea)







**adaka** **M**  
**madinabeitia**

**Floridako  
altxorra !  
35**

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ



**ERROTA**  
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ  
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390  
e-mail: errotadental@euskalnet.net

**PLATER MIMATUAK...**  
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA  
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

*Jatetxea - Taberna*



**"EL CLARETÉ"**

Unai eta Patxi Fernandez de Retana  
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ  
Telefona: 945 26 38 74



ARMAZOIRIK  
GABEKO  
BETAURREKOAK

**49** € TIK HASITA

**MENDIAOPTIKA**  
DESDE 1856 AZ GERO  
**MULTIOPTICAS**

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33  
Vitoria-Gasteiz

www.multiopicas.com  
Informa zaituz gure  
Kreditu Txartelen abantailaz

**Garagardotegia**

Ostiral arratsaldeak,  
larunbatetan eta  
igandeetan  
IREKITA

*Gerentzia berria*

**La Blanca**

\* Oilasko erreak  
\* Kazolatxoak

UKONDO  
ERREA  
DAGO

Tfnoa. 945 27 90 46  
Herrandarren kalea, 82  
Gasteiz





Ramiro de Maeztu-n 2. batxilergoa bukatzen ari da Dorleta. Arte Ederretako aukera eginik datorren urtean “Proiektuak eta eraikuntza-lanen zuzendaritza” delako modulua dauka eginbeharren artean, “deli-neatzaile, arkitekto laguntzailearen antzekoa”. Horrez gain, trikitxa, gitarra, euskal dantza, pandero eta erritmo duen edozerri ekiten dio gazteak.

# DORLETA VARONA PELEGRIN:

“Oso jenio txarra daukat baina beti bukatzen dut barrezka”

**-Duzun bertuterik handiena?**

Alaia naizela eta denetaz barre egiten dudala.

**-Zer eskatzen diozu bizitzari?**

Gauza asko... osasuna, lagun onak izatea, familia..., eta Euskal Herriari dagokionez galipota heldu ez dadila.

**-Zer eskatzen du herriak?**

...uste dut bakoitzak bere onurarako gauzak eskatzen dituela, denetik eskatzen da..., arazoen konponketa batez ere...

**-Jeniorik ba al duzu?**

Bai!!, asko, asko... (barre egiten du).

**-Noiz kaleratzen duzu?**

Beno, ni maniatikoa naiz, eta moskeatzen naizenean, buff!!, erretzen naizenean batez ere, aguanta dezaket baina gero...; gauza da

azkenean barrezka bukatzen dudala beti.

**-Geu aldizkariaren berririk bai?**

Bai, ezagutzen dut eta hemedik aurrera jaso ere egingo dut.

**-Irratsaierik?**

Ez dut irratia entzuten.

**-Telebista programarik?**

Ez dut oso gustuko telebista, baina zerbait ikustekotan umore saioak atsegin ditut, “El club de la comedia” esaterako.

**-Liburu bat?**

Saramagoren “Ensayo sobre la ceguera”.

**-Gustuko musikarik?**

Edozein trikiti talderena; gero, Betagarritik hasita edozer musika mota gustatzen zait, Ken 7..., baina batez ere euskal musika.

**-Gasteizek duen onena?**

Jendea.

**-Eta txarrena?**

Lagunekin plan onik egiten ez baduzu oso aspergarria izan daitekeela.

**-Oporretarako leku bat?**

Frantzia aldeko Britainia, urtero joan ohi gara.

**-Amets bat?**

...(tik-tak-tik-tak)... ondo bizitzea arlo guztietan...

**-Amesgaiztorik?**

Ez dut amesgaiztorik izaten.

**-Euskaraz bizi daiteke Gasteizen?**

Bizi? Euskaraz gero eta gehiago entzuten da baina bizi, bizi... etorkizun batean agian bai.



# GASTEIZEN "D NATURALARI" BIDEA

D naturala edo Mantenuzko ereduaren seme-alabentzat hautatzen duten gurasoak gero eta gehiago dira Gasteizen. D naturala eredu duela hamabost bat urte sortu zen, Duranako Ikas-Bidea ikastolan. Hirian gorantz zihoan guraso euskaldunen kopuruak bultzatuta sortu zen eredu hori, eta urteen poderioz zabaldu egin da hiriko beste ikastola batzuetara. Orain Ikas-Bidea, Aranzabela eta Abendaño ikastolek eskaintzen dute, eta aurrerantzean Tokieder-ek ere aukera hori izango du, bertako arduradunek GEU aldizkariari jakinarazi legez.



Jose Amenabar

**B**aina zer da D naturala? Nolakoak dira talde horiek? Aranzabela ikastolako hiru irakasleekin egon gara, eta haiek ereduaren xehetasun guztiak azaldu dizkigute. Celia Aldai zuzendariak, Olga Agirre Euskararen normalkuntzarako teknikariak eta Jose Amenabar Lehen Hezkuntzako irakasleak ongi asko dakite sortzez euskaldunak diren haurrek eta erdaldunak direnek erritmo eta prozesu desberdinak behar dituztela ikasteko, batzuek euskara menperatzen duten bitartean, besteek zerotik hasi behar dutelako. Errealitate hori aintzat hartuta, eta Gasteizen euskaldun kopurua gora egiten joan dela kontuan hartuta, haur euskaldunen talde txiki bat sortu zuen, aurrenekoz, Duranako ikastolak. Baina, denbora-

rekin familia euskaldunen eskaera handituz joan zen, eta mantenuzko eredu beste ikastola batzuetara zabaltzearen beharra ikusi zen. Gauzak hala, Aranzabela ikastolak duela hamahiru urte jarri zuen martxan ikasketa prozesu hori, eta gauza bera egin zuen Abendaño duela lau-pabost urte. Hiru ikastola horiek D naturaleko gela bana dute gaur egun, baita Tokieder-ek ere hemendik aurrera.

Jose Amenabarrek argitzen digunez, bai mantenuzko eredu (D naturala) bai murgiltzekoa (erdarazkoa), biak ala biak dira D ereduak, baina ikasketa prozesu desberdinak daramatzate batak eta besteak. Eta zein onura dakarkie haurrei eredu bat ala bestea aukeratzeko? Olga Agirreren esanetan, alde batetik, ikasleen onurarako da. Izan ere, ikasle euskaldunak batera egonez gero, errazago ulertzen dituzte irakasleen azalpenak, bere ama-hizkuntzan ari direlako. Erdaldunei, berriz, beste modu batean irakatsi behar zaie. Baina Agirrek argi uzten du azkenean bi taldeetako ikasleek aukera bera dutela eta gauza bera ikasten dutela. "Irakasleentzat ere erosoagoa da irakastea denok maila berbera izanda, nahastuta egotea baino", gaineratzen du.

Amenabar ere iritzi berekoa da: "Euskaldunak direnak erdaldun talde batean sartuz gero, haien euskara maila asko jaitsiko litzateke eta aukera eskasagoa izango lukete euskaraz praktikatzeko, eta alderantziz, gauza bera gertatuko litzateke". Nolabait esatearren, ikasketari begira "egoera artifiziala" sortzen da euskaldunak eta erdaldunak nahasten badira.

**IRYSTA**

poteo eta pintxoak

**TABERNA**

 Mateo Moraza 19  
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

**ESPEZIALITATEA:**

Patata tortila • Otartekoak

**ITYRRIETA**

Sagardotegia

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

**OSTIRALETIK  
IGANDERA IREKITA.  
ASTEAN ZEHA  
ENKARGUEN BIDEZ.  
ASTEBURUETAN:  
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK**



## EGINEZ

"Bereizketa egiterakoan helburua ez da euskaldunei erraztasun gehiago ematea, kontrakoa baizik, erdaldunak euskaldunen artean baztertuta senti ez daitezen egiten da"



Olga Agirreren uste-tan, euskararen normal-kuntzari begira ere oso lagungarria da D naturala taldeak eratzea. "Gasteiz bezalako leku batean, non euskaldun gutxi gauden, euskaldunek halako eredu edo toki bat behar dute harremanak egiteko". Izan ere, elkartzea ona da euskaldunek ikastolatik kanpoko harremanak sendotzeko.

#### Administrazioak zer esanik badu

Alabaina, ez da hain erraza izaten urtero D naturaleko taldeak sortzea. Hezkuntza sailak ez baititu araututa halako klaseak, eta matrikulazio garaian zailtasunak izaten dituzte gela bat sortzeko. Aranzabelako kasua da

hori, urtero arazo berarekin topatzen baitira irakasleak. Legez bi baremazio horiek egitea jasota ez dagoenez, 23 ikasle euskaldun lortzen ez badira talde bat egiteko (bai gutxiago daudelako, bai gehiago daudelako), ez dago mantenuzko taldea egiteko aukerarik. Egoera ikusita, Administrazioak gaiari heldu beharko liokeela iritzi dio Aménabarrek, matrikulazio garaian arazorik ez izateko, eta behingoz eredu hori ikastoletan finkatzeko.

Hasieran, Administrazioa guraso eta ikasle euskaldunen alde zerbait mugitu zela dio Aménabarrek. Gasteiz hiru zonaldetan banatu zuten, eta hiritik kanpo bizi ziren

umeei autobusak jarri zizkieten hona etortzeko. Gainera, D naturala taldeak sortzea pedagogikoki ere "gomendagarria" dela esan dute Hezkuntza sailetik, ez bakarrik euskaldunentzat, baita erdaldunentzat ere. Baina, urratsik eman gabe jarraitzen dute arlo honetan.

Aranzabela ikastolako arduradunek azpimarratu dutenez, halako ereduak sortzea ez da, inolaz inora, erdaldunekiko "diskriminazioa" sortzea. "Bereizketa egiterakoan helburua ez da euskaldunei erraztasun gehiago ematea, kontrakoa baizik, erdaldunak euskaldunen artean baztertuta senti ez daitezen egiten da".

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

**zurbeltz**

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



Hitza, bihotzaren giltza:

GORA EUSKADI

ASKATUTA!



# VOCALIA, kolore eta sentipenez

**Tolosako Abesbatzen Nazioarteko 34. Lehiaketan egindako lan apartarengatik jasotako sariei esker ezaguna egin da Gasteizko Vocalia abesbatza. Basilio Astulezen gidaritzapean dauden hogeita sei emakumeren ahotsek lan dezente izango dute hemendik aitzina Euskal Herriko zein atzerriko txapelketetan, ospearen ateak ireki baitzaizkie.**

Vocalia abesbatzak ahots berdinen txapela jantzi zuen polifoniano Tolosako Lehiaketaren azken edizioan, eta bigarren postua eskuratu zuen folklore arloan. Gainera, euskal obra baten interpretaziorik onenaren saria ere jaso zuen

pozik hartu du (baita taldeak ere) azken hiru urtetako lanaren aitopena. Izan ere, Vocalia, abesbatza gaztea da, 1999an sortu baitzuen Astulezek berak. "Oso gustura egiten dut ahots berdinekin, eta bereziki emakumeekin. Pentsatzen dut oso erreperitorio zoragarria dagoela soilik nesken-tzat egina", azaldu digu. Emakumeen lengoi musikalarekiko zaletasun horrek bultzatu zuen Vocalia taldea sortzera. "Hemen dagoen ustea da gizonik gabeko abesbatza osatu gabekoa dela, eta ni ez nator bat horrekin", diosku. Astulezen irudiko, emakumeek bakarrik osatutako abesbatza osatua da berez: "Oso aberatsa da, kolore asko ditu eta sentazio asko bildu ditzake".

Hartara, emakumeen abesbatzekiko egon daitezkeen aurreiritziak alde batera utzi, eta apurka-apurka toki bat egiten joan da Vocalia. Eta aise erdietsi du publikoaren zein epaileen babesa. "Bizitza laburra dugu, baina trinkoa oso", dio Astulezek. Tolosako txapelketa mugarriz izan da abesbatzaren bizitzan, ate asko ireki baitizkio taldeari. Europako hainbat herritatik eskaintza mordoa heldu zaizkie, eta aurtun "egitarau polita" egitea lortu dute. Alabaina, Astulezek ez du abesbatza estutu nahi eta lasaitasunez hartuko

dute ospea, orain arte eramandako erritmoari eutsiz.

Arestian esan bezala, emakumeekin lan egitea oso gustuko du Astulezek, abesbatza mistoekin alderatuta, egin beharreko lanean ezberdintasun nabarmenak sumatzen baititu. Emakumeekin bereziki moldatzen da ongi Vocalia-ko zuzendaria, "neskak oso serioak direlako lanean, mutilek baino arazo gutxiago ematen dituztelako". Lanean zorrotzagoak eta disziplinatuagoak ei dira emakumezkoak, nahiz eta gizonezkoen artean salbuespenak ere egon.

## Arabian, abesbatzak "lokar-tuta"

Abesbatzen mundua txikitatik ezagutzen du Astulezek, Euskal Herria eta bereziki Arabaren egoeraren analisia egiteko bezainbeste. Ezkorra da, ordea, Araban koruek duten kroskarekin: "Gutziz lokartuta ikusten dut egoera". Abesbatzak ez direla berritzen eta gazteek arlo horretan sartzeko gogorik ez dutela irizten dio. Hartara, abesbatzak "helduen eliza munduan" gertatzen direla kritikatzeko du, zokoratuta.

Arabako egoera, beraz, nahikoa txarra dela uste du Basilio Astulezek. "Urte batzuen ospearen errentetatik bizi gara" salatu, eta hori aldatzeko beharra azpimarratzen du; baina horretarako, bere aburuz, abesbatza munduari "janaria" eman behar zaio egunero. Izan ere, Bizkaia eta Gipuzkoako kroskarekin alderatuta, Araban apur bat geldituta dago koruen mugimendua, haurren zein helduen kasuan.



Basilio Astulez, zuzendaria

Gasteizko koruak (David Azurzaren "Oihu hau" kantarekin). Basilio Astulez zuzendariak ez zuen, inondik inora, horrenbeste sari irabaztea espero, baina




# betetako ahotsak

Eguno parada aldatzeko, ezinbestekoa deritza Federazioak, Udalak eta Diputazioak koruen kalitatearen eta kulturaren sustapena bermatzea.

Arabako erakundeek egoera honetan duten erantzukizuna nabarmendu, eta sustagarriak sortu behar dituztela uste du Astulezek. "Baina ez bakarrik urtean behin aurrekontu bat emanez -eskertzekoa bada ere-, baizik eta txapelketa, lehiaketa, kontzertu bereziak, konposizio berrien munduko txapelketak antolatuz, abesbatzen arteko harremanak sendotuz..., eta abar".

Kroskak hobera egingo duen ala ez, batek daki. Baina, bien bitartean Vocalia-k gogoz begiratzen dio etorkizunari. Etapak emeki-emeki gaintitzea, eta "datorrena datorrela" ideiarekin aurrera egitea. Xede xumea bezain handia dute. Zorte on izan dezatela, beraz.



## BASILIO ASTULEZ: PASIOA LAN BILAKATUTA

Dulantzin jaioa da 27 urteko zuzendari gaztea. Bertako Musika eskolan egiten du lan, kantu koraleko irakasle gisa. Horretaz gain, herriko Ayala abesbatzaren zuzendaria da (herriko 25 bat emakumez osatzen dute taldea).

Gasteizen, Vocalia eta Alaitz abesbatzekin aritzen da. Eta azkenik, Leioako Musika eskolan ere bi koruren irakasle da: Kantika haur abesbatzarena eta San Juan Bautista koralarrena. "Nire bizitza entseiu hutsa da". Halaxe laburbiltzen du bere lana. Entseia eta pasioa, dudarik gabe.



IZARRA TABERNA - JATETXEA  
BITORIANO - ZUJA (ARABA) • ☎ 945 430 073

## NON BAIT

**Kamisetak:** Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

**Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak**

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxa: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

**GASTEIZ**

ZURE  
EUSKAL  
DENDAK



**arabarrok euskarari BAI**

[www.euskoalkartasuna.org](http://www.euskoalkartasuna.org)



[www.gazteabertzaleak.com](http://www.gazteabertzaleak.com)



Izozkiak



# JOSU FEIJOO:

Bizkaia 2002-2003: Hego poloa

“Hutsik egotearen  
sentsazio arraroa  
daukat”



**“Bizkaia 2002-2003: Hego poloa”** espedizioak Angel Navas, Guillermo Bañales eta Josu Feijoo mendizale euskaldunak elkartu ditu oraingo honetan 52 eguneko abentura berri batean, lehen biak zortzi hilabete eta hamaika eguneko epean Hego eta Ipar poloetan egondako munduko pertsona bakar bilakatu direla. Josu Feijoo gasteiztarraren esanetan: “marka haustea estatistiketarako gelditzen da bakkirik; maila pertsonalean, lehena edo azkena izanik ere pribilegiatua sentitu naiz han egoteko aukera izan dudalako”.

**-Zorionak!, urtea hasteko modu polita zuena...**

Eskerrik asko Willy eta Angelen izenean ere bai, izan ere gu talde bat gara, lagunak gara eta urte asko daramatzagu elkarrekin gauzak egiten; egia da azkenengo urteetan oso helmuga zailak jarri dizkiegula geure buruei: Everest, Cho-Oyu, Antartidan mendi birginak eskalatzeara... Ipar polotik bueltan oso harrera ona izan genuen eta orduan Hego polora joateko idea bururatu zitzaigun... Marka haustearen kontuari dagokionez, 8 hilabete eta 11 eguneko epearen barruan izatearena datu ofiziala besterik ez da; maila pertsonalean, aldiz, berdin zait helmuga bera lortu duen zazpigarren edo hogeita zazpigarren mendizalea izatea, niretzat pribilegioa izan baita bi poloetan egon ahal izatea. Beraz, markak haustearen gaia estatistiketarako utziko dugu.

**-Zu espedizioan hasterako zure adiskideek 40 egun zeramaten dagoeneko; zu azkenengo astean soilik egon zinen, zer dela eta?**

Hasiera batean beraiekin batera irten behar nuen Hercules Hinlet abiapuntutik, baina duela bi urte Antartidako mendiak eskalatzetik bueltan nentorrela neska bat ezagutu nuen eta egun ezkontzeko papearak adosten ari gara. Bera errusiarra denez izapidetako asko dira eta, ondorioz, Hego poloarena apur bat atzeratzea erabaki nuen, niretzat nire neskak baitu lehentasuna. Ordutik nire partehartzea atzeratu bazen ere, beste modu batera planifikatu genuen bidaia eta beraiek pisu kontuagatik eraman ezin zituzten gauzak berreskuratu nitzkien, baita apurta gauzen berriak ere. Dena den, egunero egon naiz beraiekin harremanetan bai espedizioa nola zihoan jakiteko, bai beste zenbait gauzaren inguruan hitz egi-



teko, telebistan 'Simpsonarrak' zeudela botatzen esaterako. Kontu pertsonalekin amaitu nuenean Punta Arenasera zihoan lehen hegazkina hartu eta hortik aineratzeko erabili dugun Patriot Hills amerikar basera joan nintzen. Baina eguraldiaren baldintzak egokiak ez zirenez hamar egun eman nituen zain.

**-Beraz, eguraldiaren egoera kaskarrak gehiago atzeratu al zuen espedizioaren helmuga data?**

Ez, guk ez generaman data zehatzik, gure aukera fisikoen arabera prestatu dugu dena. Ipar poloan 17 km egunero egiten genuen bitartean, hemen 28 km egin ditugu, eta nik egunero botaka egiten pasa dut, lehenengo egunean hamaika bider egin nuen, izan ere, prestakuntza handiko bi lagunekin topo egin bainuen hara helitzean. Gauza da azken bost egunetara arte ezin izan nintzela beraiekin bildu...

**-Zure harrera oso berezia izan zen gainera, behin-behineko lurreratzeko pistan utzi baitzintuen hegazkinak...**

Hegazkin txikia zen, 3-4 eserlekuakoa alegia. Gainera haizeak 17-19 korapilo baino gehiagoko abiadura izan ezker pilotua ezin daiteke aineratu, hortaz, haize dexente zegoenez hamar egun egon behar izan nuen zain, bakarrik, kanpindandan, inorekin hitz egin gabe eta gainera 24 orduz argiarekin... gaueko hirurak ziren eta lokartu ezinik... azkenean pazientzia erretzen duzu...

Baina haizearen abiadura jaitsi zenean, behingoz haiengana joan ahal izan nintzen. Hegazkinetik zoragarria da zeruak eta lurak nola egiten duten bat ikustea, dena zuria da eta hodeiertza desberdintzea ez da batere erraza... Hara heldu ginenean Willyk eta Angelek 200 X 20 metroko lurreratzeko pista egina zuten euren eskiekin, elurra zapaltzen zortzi ordu egon ziren eta hegazkinak pista igarri zezan trineoak eta poltsak jarri zituzten neurriak zehazteko, oso "etxekoa" izan zen... behin lurrean nengoela poztasun handia sentitu nuen, baina ez nekien nor zein nor, ez nituen ezagutu, itxura horiekin... (barre egiten du).

**-Haize bortitzari eta tenperatura bajuei aurre egitea erronka handia da...**

Bai, baina gorputza egokitzen da. Hegazkinetik jaistean agurra oso laburra izan zen, hamar gradutan egotetik -30 gradutara egotera pasatzen zara bat-batean eta hortaz ezin zaitezke denbora luzez geldirik egon. Bestetik, ordu eta erdiro hamar minutuko atsedaldia egiten genuen; edari isoterikoak hartu, fruitu lehorrak edota txokolatina hartzeko minutuak zenbatuta daude bestela hotz gera zaitezke. Eta horren ostean berriro bideari ekiten genion. Egunero bederatzi orduko ari-

keta benetan aerobikoa egiten genuen. Txarrera akaso, behin eguna amaitutzat ematen genuenean dendera sartu eta argia zegoenez oso despistatuta geundela.

**-Zer da bereziki gogora datorkizuna han bizi izan dituzun pasarteetarik?**

Bost egun hauetan nahiko gaizki pasa dut, beraiek egun batzuk zera-maten eta nire erritmoa nahiko bajua izan da beraienarekin alderatuz. Amorrua eman zidan hain egun gutxi egoteak beraiekin eta, beraz, ez nau gehiegi ase. Bestetik, bertan entzun daitekeen isiltasuna ikaragarria da, mundua borobila den sentsazioa ere izan dut, hegazkinean zoazela zeruertza ez baituzu marra zuzena bailitzan ikusten. Txarrera, berriz, amerikar basera bueltan ari ginela, hegazkineko "atzeko aldeko patina" delakoa blokeatu zen eta pilotoaren aurpegian hilko gineneko isla ikusi genuen; azkenean ez dakigu nola baina desblokeatu zen eta ondo lurreratu ginen. Txilen geundela, berriz, lurrikara benetan handia pairatu genuen, benetan beldurgarria..., eskerrak azkenean etxera ondo iritsi garen. Nolanahi ere, orain hemen nagoela, adiskide eta familiarekin gustura nagoen arren hutsik sentitzen naizen sentipena daukat, arraroa da...

**-Noizko zure hurrengo irteera eta nora?**

Momentu honetan hutsik bezala sentitzen naiz eta nire buruari galde-tzen diot ea nora joango naizen hurrengoan, hainbeste tokitan egon naiz jada..., ez dakit, zaila da. Beno, zehaztuta daukadan gauza bakarra da apirilean Nepalera noala ume txiroentzako ospitalea irekitzera; bertara hiru urtetarako janaria eramango dut, baita botikak ere. Ondoren akaso Everest hegoa aurpegitik igotzeko saialdia egiten dugu oxigeno gabe...





## OTSAILA

4

Parral, astearteetako ekitaldia:  
ANOREXIA. Disko berriaren aurkezpena.  
20.30etan



5

Arabako Campus-eko VII arte-lehiaketa. VII argazki-lehiaketa. Otsailaren 5era arte. Unibertsitate Pabilioian, 8.00etatik 20.30etara.

6

Itziar Rekalde, helduentzako ipuin kontalaria. 20.00etan Jardin de Falerina-n (Montehermoso kulturunean)



11

Parral, astearteetako ekitaldia:  
Avelino, Galiziar IPUIN KONTALARIA 20.30etan

12

Hitzaldia (Latin Amerika bidegurutzean jardunaldien barruan): Brasilgo Lurrik Gabeko Mugimenduen esperientziatik ikasten". Hizlaria: Angel Calle. Soziologoa eta Kanpo Zorra Deuseztatzaren aldeko Sare Herritarreko kidea. 20.00etan, Hikaateneo-n.

16

Erakusketa: Brenan Duarte: El decálogo. Otsailaren 16ra arte. Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegia.

18

Parral, astearteetako ekitaldia: KULTUR ERROTA, GEU ELKARTEAREN ESKUTIK (Ekitaldia zehazteke) 20.30etan

19

Hitzaldia (Latin Amerika bidegurutzean jardunaldien barruan): Porto Alegre-ko III. Munduko Foroa". Hizlariak: Paul Nicholson, EHNEko kidea; Josu Egireun, Hemen eta Munduan-eko kidea; erakundeetako norbait. 20.00etan, Hikaateneo-n.



25

Parral, astearteetako ekitaldia: MAHA. Rock y no roll. 20.30etan



eUSKALDUNON  
denbora-pasa  
eta hitz jokoen  
hilabetekaria

12 ale ~~36€~~  
urtean 30€



### HARPIDEDUN izan nahi dut

ZOZKETA MUNDIALA HARPIDETZEN ARTEAN 2003KO MARTXOAN

|  |            |
|--|------------|
| DEITURAK:  |            |
| IZENA:   |            |
| HELBIDEA:  |            |
|  | P.K:       |
| HERRIA:  | LURRALDEA: |
| TFNOA:   | SORTEGUNA: |
| POSTA E:   |            |
| Ordainketa mota:   |            |
| <input type="checkbox"/> Txekea <input type="checkbox"/> Kontu korrontea |            |
| Titularra:   |            |
| Ipar E.H.  |            |
| Ipar E.H.  |            |

LUMA, O.E. - Istillaga plaza 2 behe. - 20304 IRUN (Gipuzkoa)  
Tfnoa: (0034). 943 62 95 64 - 943 63 08 83  
E posta: lumazorrotz@infonegocio.com



# OTSAILA ETA MARTXOA

## ➤ HONA HEMEN OTSAIL ETA MARTXOKO EUSKAL EMANALDIK GAUEKOAK PROIEKTUAN:

Aldabe Gizarte Etxean:

- Otsailak 8. 00.00-2.00. Beira-Aleak (lantegi irekia).
- Martxoak 14. 22.00-0.00. Txalaparta (lantegi irekia).
- Martxoak 15. 22.30. AGERTOKI IREKIA:

-BENTRI-MAGIK: Elvi sabel hitzuna eta Marsel magoa.

-"EZ SUFRITZEKO ERREMEDIOAK". Itziar Rekalde-ren Narrazioak.

-Martxoak 21. 22.00h. Udaberriko Kontzertua.  
Plaza Berrian.

-Martxoak 28. 0.00-2.00. Larrugintza (lantegi irekia).

Izen-emateko lantegiak:

- Perkusioa. Otsailaren 7, 14, 21 eta 28an.
- Aeroboxing. Otsailaren 7, 14, 21 eta 28an.

Argibide gehiago: Kulturama. 945-141060 edo gauekoak@gaukoak.org

www.gaukoak.org



➤ **Lehiaketa:** apirilaren 9ra arte:  
Urruzuno literatura lehiaketa.  
Prosa eta Poesia. DBHko 3. edo  
4. Maila, Batxilergoa edo Erdi  
Mailako Heziketa Zikloetako  
ikasleei zuzendua.  
Antolatzailea: Eusko  
Jaurilaritzako Hezkuntza Saila.

➤ **Hikaateneo-k**  
otsailerako  
antolatu  
agenda ere  
ez ahaztu.

➤ **Zuloa-Espacio-n** Edurne Herran artista  
gasteiztarraren argazki erakusketa  
urtarrilaren 24an inauguratu zen;  
maniki zatikatuak, 'Orgullo gay' dela-  
ko egunaren kolorez beteriko argaz-  
kiak, autorretratuak, panpin ezagu-  
nak zakilekin batera...

**BUZTINTZA**  
KERAMIKA TAILERRA  
**KERAMIKA HERRIKOIA**  
**ETA BERRIA**  
HEDEGILE kalea (Korreria), 120  
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

**ARTEPAN**  
Artisan  
Okindegia eta  
Goxotegia  
Jesús Guridi kalea, 2  
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37  
01005 GASTEIZ

**azkarprint**  
Imprenta / Imprimategia  
**S INPRIMATEGIA S**  
Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

**CEGASA**  
INTERNATIONAL  
ALCALINA  
CEGASA PILAK  
INDARTSUENAK  
ETA  
EKOLOGISTENAK  
MERKURIO-KALDIRAK  
%0a

**ZURE HARATEGIAK**  
*Jose Luis*  
**GARMENDIA**  
HARATEGIA-URDAITEGIA  
Andaluzia kalea 13  
☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ  
**XABIER**  
**AIZPEOLEA** HARATEGIA  
FLORIDA AZOKA 2 eta 3  
☎ 945 13 24 48  
ABASTOS AZOKA 2 eta 3  
☎ 945 26 78 97  
*gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak*





LABURPENA

1. "Neska haren irribarrea". Lourdes Oñederra.

Mutil bat, kotxea daramana. Neska bat, irribarre lasaigarriaz. Hiri bat. Kale ilun bat; hara joan da neska zerbaiten bila. Bebarru berde batean sartu da. Mutila kotxean zain. Geroago, neskarekin batera beste mutil bat agertzen da, Victor izenekoa. Hiribarnera joango dira kotxez. Neskak erabakiko du arratsaren garabidea, antza. Derrepentean.

...

2. "Eskurik ez eskuan". Patxi Zubizarreta

Kotxea martxan hiribarnertantz. Mutila artaga dago, deseroso. Neskaren eskua bere eskuaren gainean jarrita. Victor atzean, ixilik, maleta ttiki bat eskuetan duela. Auto berde bat atzetik. Mutilak kondoiak erosten ditu, badaezpada. Victor jaisten da; geltokira doa akaso? Orain eskurik ez eskuan, eta Victorren maleta atzean dago. Kotxe bat atzetik. Gauaren kolorea ezin asmatu. Eta Alan Stivell-en musika lasaia autoan.

...

# IBAN ZALDUA

## 3. "Bikien kluba"

-Polita da, baina pittin bat aspergarria, ez duzu uste, Jon? -esan dio neskak-. Ez al duzu zerbait gogorragoa? Gustura entzungo nuke Sepultura-ren kanta bat, edo Rammstein-en bat.

Autoan duen gauzarik gogorrena The Corrs-en bilduma dela pentsatu du, baina ez dio ezer esango. Dena dela, neskak ez du itxaroteko asmorik: stopa sakatu, eta Alan Stivell-en zinta atera du; kaxa bilatzeaz arduratu gabe, irrati-kasetaren azpiko zulora bota du, keinu axolagabe batez. Sekulan ez zuen itxaroten neska horrek. Berari, behintzat, hala iruditzen zitzaion. Zintak klak egin zuen plastiko beltza-ren kontra jotzean.

Eta Joni Alan Stivell-en zinta hura erosi zuen garaia etorri zaio gogora. Britainarako bidaiari izan zen, Dinan-eko souvenir denda horietako batean. Gero crêpe batzuk jatera abiatu ziren Pablo eta biak. Denbora hartan Pablarekin bai-

tzebilen. Ustekabean, dardarizo txiki bat sentitu du, lepotik bizkarrezurrera zabaldu zaiona. Ez du uste neska konturatu denik. Ez daki Pablarena kontatuko ote dion neskari. Alde batetik, bai: zergatik ez? Baina, beste aldetik, ez. Ez du uste komeni denik. Ez oraingoz, behintzat.

Auto berdearen arrastorik ez atzerako ispiluan. Lasaia dago mutila: irudimen gehiegi du, batzuetan.

Neska, antza, nekatu da zinten artean lardaskatzeaz. Autoaren gomazko zoruaren gainean dautza, kaxetan edo kaxetatik kanpo, Dubliners, Chieftains, Gwendal eta Pentangleren zinta guztiak. Stivell-ena atera bezain pronto irratia piztu egin da, baina ez diote kasu handirik egin. Ez behintzat Jonek. Esataria albiste hori ematen hasi den arte.

"Ahaz dezagun une batez Rael, haren apezpikusak eta haren UFOak, eta egin diezaio-



gun geure buruari zentzuzko galdera bat: posible al da jadanik ume bat klonatzea? Lee Silver Biologia Molekularreko katedradunaren ustez, ez dago inolako zalantzarik: posible da".

Kazetariaren ahotsa sakona da, kasik solemnea. Atseгина iruditu zaio Joni. Orduan hitz egin du neskak:

-Musika onik ez baduzu, eta axola ez bazaizu, irratia itzaliko dut. Ez dut esatariaren ahotsa gustuko.

Eta ezkerreko eskua irrati-kasseterantz zuzendu du neskak, Jonen eskuinekoak, keinu bizkor batez, bidea itxi dion arte. Bigarren aldiz ukitu dute elkar. Kontaktua minimoa izan da, umela. Hotza. Narrastiro hotza.

-Ez, utz ezazu -erantzun dio mutilak-. Notizia interesatzen zait.



Eta amiñi bat igo du bolumena. Tertulianoen arteko eztabaida horietako baten hasiera zirudien.

"Giza-enbrioi bat klonatzeko teknologia existitzen da, eta posible da raeliarrek, Severino Antinori italiar ginekologoak edo beste alproja talderen batek ume bat klonatu izana. Dena dela, hilezkortasuna ez da...".

-Benetan, nahiago nuke itzaliko bazenu. Gaiak nazka ematen dit. Benetan-neskaren ahotsak hunkitu du mutila. Itzali egin du aparatua.

Isiltasuna kolpe bat bezala heldu da auto barrura. Agian horregatik hasi da neska berriro hizketan.

-Orduan, zer? Eramango al nauzu afaltzera? Ziur ondo ulertu dituzula nire azalpenak? -gehitu du, jostari-. Gero esango dute gizonezkoek orientaziorako sen handiagoa duzuela...

-Ondo dakit zein den bidea. Orain eskuinera hartu behar dut -erantzun dio Jonek, haserre antzean.

Erdigunea zeharkatu ondoren, periferiako auzoetan barneratu da autoa. Semaforoak desagertzen dira. Eraikinak bakanduz doaz. Txalet jardindunak

ugarituz. Heldu dira azkenik.

Etxe handia da, harrizkoa, erabat berriztua. "XVI. mendekoa", esan zion neskak lehenago, afaltzeko plana proposatu zionean. Etxearen ondoan, haritz biluzi bat. "Benetan, harritzen nau zuk ez ezagutzeak. Sekulako arrakasta izaten ari da", gehitu zuen, baita ere. Sarreran, egurrezko txartel bat: "Bikien Kluba -Jatetxea", eta, azpian, hiru sardesken marrazkia. "Bani niri ez zait horren bitxia iruditzen, izena", erantzun zion neskak. "Bikiak izango dira jabeak, auskalo". Joni mendeak pasa direla iruditzen zaio, hitz horiek entzun zituenetik.

Aparkalekuan beste bi auto besterik ez daude. Sartu dira jatetxera. Victorren maleta han geratu da, atzeko eserlekuan, baina mutila ez da ezer esatera ausartu. Zerbitzari batek mahai txiki batera lagundu die. Eseri bezain pronto, eskua burura eramandu Jonek.

-Tabakoa ahaztu dut. Barkatuko didazu.

Eta aparkalekura itzuli da. Paketea eskuratu du, eta baita kondoiak ere: kaxatik bat hartu, eta diru-zorroan

gorde du. Inoiz ez da jakiten noiz. Mutila saiatu da irudikatzen jatetxeko komunak. Baina, burua astinduz, uxatu egin du ideia. Alde batetik, bai: zergatik ez? Baina, beste aldetik, ez. Ez du uste komeni denik. Ez oraingoz.

Autotik ateratzerakoan begira geratu zaio atzeko eserlekuan, geldi-geldirik dagoen maletari. Ezin izan dio tentazioari eutsi. Atezko aldera pasa, eta, mugimendu bizkor batez, damutu baino lehenago, hesgailu biak ireki ditu, klik, klik. Baina ez du astirik izan barruan zer dagoen jakiteko: maleta zabaldu baino lehenago ikusi baitu, zeharka. Ezkerreko leihatilatik.

Auto berdea. Pixka bat urrunago dago aparkatuta, haritzaren ondoan. Une horretan bertan, txiskero bat piztu da auto berdearen barruan. Eta bost segunduz argitu duen aurpegia, zalantzarik gabe, jatetxe barruan dagoen neska bera-rena da. Berdin-berdina, edo oso antzekoa, behintzat. Begiak berarengan il-tzatuta zeuzkala iruditu zaio Joni, neskak zigarreta pizteko erabili dituen bost segundu eternal horietan zehar.

## Irakurtzeko irrika sortuz eta lortuz

Lourdes Oñederrak eman zion hasiera abendu-ko alean istorio kateatu honi "Neska haren irribarrea" izenburuaz; utarrileko alean Patxi Zubizarretak eman zion jarraipena "Eskurik ez eskuan" izenburupean.

Istorio kateatu honen 3. atala dugu honakoa, "Bikien kluba", Iban Zalduak sortua. Zer dakarkigu? Irakur dezagun, ba.

Eta katea ez da hemen eten egingo...

...hurrengo izango da?

Martxoko alean Rikardo Arregiren jarraipenaz gozatu ahal izango gara...

Zer ekarriko ote digu?

© Ivan Zaldia eta Geu aldizkaria

## Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztekoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65  
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

## Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN  
GORRI



GASTEIZ  
Tren geltokiaren ondoan  
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA  
OIARTZUN



## ARANBIZKARRA

ZURE

AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16  
Tfnoa.: 945 28 28 39  
01002 Gasteiz

## Xabier

taberna

musika ona  
eta giro ezin hobea  
Aiztogile kalea (KUTXI), 23



# KARTZELAK ETA KONTZENTRAZIO-

Txema Flores, "Araba gerran. 1936" liburuaren egilea eta Arabera kultur taldeko kidea  
Txema Flores, "Araba gerran. 1936" liburuaren egilea eta Arabera kultur taldeko kidea

**1** 937 urtean lau mila pertsona baino gehiago zegoen Gasteizen preso eta horiei erantsi behar zitzaizkien frontetik 1939ko otsailean iritsi ziren beste hiru mila.

Horretarako leku ezberdinak prestatu ziren kartzela eta kontzentrazio-esparru bezala.

Gasteizetik kartzela kopuru handia izan zuen, guztiak gainezka altxamenduaren lehen hilabeteetatik. Kartzela horiek ziren: Bake kalekoa, alde zuriaren zegoena; Apaizgaitegi Zaharra, ospitale bezala ere erabili zena; Karmeldarren komentua; Aliko eskoletakoa; Korreria kalekoa; eta Zezen Plazakoa. Guztiak, bestelako lokalen ondoan (eskolaren bat eta zenbait txalet pribatu bezala), asmo horretarako prestatuak. Gizonezkoen kartzela bezala funtzionatu zuten hauek.

Emakumeen kartzela Bihotz Sakratuaren Ikastetxean kokatu zuten, lekaiak arduratu zirelarik emakumeen zainketa alai batez.

Barruko bizitza guztiz gogorra zen militarrek, alemanek eta italiarrek aholkaturik, presoekin erresistentzia eta borondatea ezabatzea bilatzen zutelako. Kartzelak eta esparruak Alemaniako erregimen naziak eta faxistek Italian erabili zituzten antzerako ikusmolde errepresiboen aurrerapenak ziren.

Gasteizko kartzelak herrialdeko

beharrei erantzuteko erabili ziren bakar-bakarrik, bertan eman ziren atxiloteten ugaritasunagatik. Frontean harrapaturiko preso gehienak kontzentrazio-esparruetara eramanez izan ziren, batez ere Miranda de Ebrokora.

Oldar-goardiak, erreketek eta Falangekoak ziren presoendegietako funtzionariak.

Sartzeak ziren preso-kamioiak iristen ziren bakoitzean, goardiak, tonu barregarrian, galdetzen zieten ea familiak agurtuak zituzten, beraietako askok jasan beharko zuten patu tristea iradokiaz.

Gaueko orduak ziren larritasun handienekoak atxilotuentzat, hamaiak eta goizaldeko ordubataren artean egun horretan paseoa (hots, afusilamendua) pairatu beharko zuten jendea ateratzen baitzuten. Presoak ziegetan itxirik zeudela, funtzionari bat agertzen zen zerrenda batekin izen batzuk ozen irakurtzen. Geldiro eta iraunkorki irakurtzen zituen izenak, presoekin larridura eta kezka areagotzea helburua zuelako. Zerrendetako izenak ozen irakurri ondoren, ziegetatik atera eta kamioetan sartzen zituzten paseoa emateko.

## Langraitzeko kontzentrazio-esparrua

Presondegia bainu-etxe zahar bat zen, Eskola Kristauetako anaiei jabe-

gokoa eta bere nobizioentzako ikastetxe gisa erabilia. Francoren Justizia Ministerioaren agindua batek behartu zituen erlijiosoak beren egoitzaren erdia Presondegi Gorputzari uztera. Espetxe zentru berriko lehen zuzendaria Manuel Sanz izan zen.

Presoak behartzen zituzten, izugarriko baldintzetan, esparruko harrobien lan derrigortuak egitera. Bazuten halaber zurgindegi tailer bat ere. Esparrua Oldar Goardiak zaintzen zuten, agintaria Gonzalez komandantea zutela. Berau arduratu zen presoekin bizitza benetan gogorra izan zedin. Izan ere, hamar urteren buruan ehun eta hogeita hamar hildako baino gehiago suertatu ziren. Heriotzen kausa nagusia tuberkulosia eta biriketako beste gaitz batzuk izan ziren.

Euskaldun gutxi egon zen atxiloturik kontzentrazio-esparru honetan. Bertan barneratu zituzten Estatu espainol guztitik ekarritako jendea eta Brigada Internazionalako kideak, horien artean alemanak, frantsesak, bulgariarrak eta mexikarrak batez ere. Bertako heriotz kopurua hainbestekoa izan zen, Langraitzeko udalak herriko hilerria handitu behar izan zuela.

## Murgiako kontzentrazio-esparrua

Murgiako esparrua Aita Paulen



komentuan zegoen. Frontoi aldean koka-  
tzen ziren sualdeak, alanbrada batez  
inguratuta. Errepresioaren ardura Galo  
Zabaltza presondegi ofizialari zegokion.  
Pertsonaia hori alde zurretik ezaguna  
zuten Gasteizko Bake kaleko kartzelatik  
zetozen presoek. Esparrua falangistek eta  
hiritar milizietan sarturiko herrietako bizi-  
lagunek zaintzen zuten. Bertan izan ziren  
1500 presoek pilatuta zeuden eraikuntzako  
sail ezberdinetan.

Presoak oso goiz esnatzen zituzten,  
zerrenda pasa eta zenbaketa egiten zen.

Komentuko apaizek, presoek luzatzen  
zizkieten erretolika ugarietan, geldiro eta  
astiro errepikatzen zieten inori Francoz  
gaizki hitz egiten entzungo baliote, beraie-  
xek arduratuko zirela halakori tiro bat ema-  
teaz. Armada fakzioak hiri nagusiak har-  
tzen zituen egunetan, apaizek gau osoa  
tiroka, trakak pizten, kantatzen eta dantzan  
pasatzen zuten.

Preso asko atera zituzten kontzentrazio-  
esparrutik Bilboko Larrinaga kartzelara era-  
mateko. Horrek adierazten zuen ziurren  
afusilatuak izango zirela.

# -ESPARRUAK 1936AN ARABAN

Gero edalontzikada bat ur ematen zieten  
gosari gisa eta alanbrada bikoitzez eta zen-  
tinela falangistek inguraturiko zelaiune  
batera eramaten zituzten, bertan eguna iga-  
rotzeko. Bazkaria eta afaria, oparotasunari  
zegokionez, ez ziren asko ezberdintzen  
gosaritik. Igandeetan, mezatara joatera  
behartzen zituzten preso guztiak. Meza  
komentuko apaizek ematen zuten eta parte  
hartzten zuten ere zaintzaileekin batera  
errepresio lanetan.

Esparruaren barruan konpartimendu  
ezberdinak zeuden gerra presoentzat eta  
preso politikoentzat, azken hauek gehie-  
nak gasteiztarak zirela. Hori horrela bazen  
ere eta nahiz eta kartzelako erregimena oso  
zorrotza izan, posible izan zen erresisten-  
tzia txiki bat antolatzea eta arrakastaz egin-  
dako ihesaldi batzuk gauzatzea ere.

© Txema Flores eta Geu aldizkaria

**Confeciones  
Pinedo**  
**JANTZIAK**

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ  
Tfnoa.: 945 23 39 90

**EYSKAL LABELA  
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

Gasteizko  
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24  
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

**JOSETXO** taberna



"ez dago pin-  
txorik".

Elizalde, z/g  
Tfnoa: 945 31 45 74  
ARAI (Araba)

**GORETTI**

**ILEAPAINDEGIA**

Hedegile kalea (KORRE), 14  
(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ



e g u n e u a  
k o



Errege atea, 9 • GASTEIZ

Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

**LA RIOJANA**  
**jatetxea**

on egin!

bokatak,  
pintxoak,  
kazuelatxoak

Aiztozile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39

Obren egite  
eta zuzentzea

**ALTUNA Estudioa**  
"Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"  
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behe • 01005 GASTEIZ  
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobila: 639 81 51 30

**XIXILU**  
**JATETXEA**  
AMARIKA PLAZA, 2  
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

**æk**

Matrikula  
zaitez!

Izena emateko epea otsailaren 7ra arte

Aizkiria euskaltegia: Jose Mardones, 8. (945 26 35 40)  
Amairu euskaltegia: Peru, 8. (945 21 75 08)  
Arana euskaltegia: Arana, 30. (945 25 24 00)



SORKUN

josune velez de mendizabal

argazkiak: galder izagirre

Sorkun aspaldiko izen ezaguna da Euskal Herrian, euskal musikan gogor eta gogoz jotzen duen izena hain zuzen ere. Zortzi urte daromatza 25 urteko oreretarrak agertokiaren gainean; bere burua lehen-dabizi Kashbad-ekin ezagutzera eman, ondoren Fermin Muguruzarekin bira mundiala egin eta azken agerraldiak bere bakar-kako lana ekarri du, Onna diskoa. Gasteiza sarritan etorri ohi da; berarekin hitz egiteko aukera ez genuen galdu nahi.

**H**amabi kantaz osatua, euskara da nagusi Sorkunenean. Hala ere, badira ere urruneko herrialdeak gogorarazten dizkiguten hitzak; izan ere, ingelesez eta arabieraz aritzen da gaztea bi abestitan: "egungo munduan, non jendea mugitzen dabilen, hizkuntzen elkartrukaketa eta mestizajea oso garrantzizkoa da, hortaz, gazteleraz idatzitako kanta bat Muhammad nire lagunari pasa nion itzultzeko; ingelesez gauza bera egin nuen, Estatu Batuetako 66 errepideaz hitz egiten bainuen eta ingelesez hobeto gelditzen zelako".

**-Zure zaleek gustura hartu dute zure lan berria, harrera ona izan du diskoak?**

Bai guztiz, harrituta geratu naiz. Komunikabideetan oihartzun handia izan du eta oraindik ere izatean ari da, promozioan ari baikara... Zaleei dagokienez, kontzertuetan aurpegi

ezagunak ikusten ditut beti, hor dago ikuslego fidela (barre egiten du)... Lan honek nire rocka ezagunaz gain ikutu bereziak ere baditu berritasunen artean, sanplerrak eta kutsu elektronikoak ere sartu ditugula; beraz, lan honekin jende berria ere gerturatzea espero dut.

**-Bakarka aritzeak ikuspegi berri batera bultzatu zaitu, idaztera hain zuzen ere, zer kontatzen du Sorkunek bere kantetan?**

Orain arte egin ez dudana zerbaite da, baina animatu egin naiz eta idazten jarri naiz. Dena den, guztiak ez dira nik idatzitakoak, badira Lander Garroren eta Josune Muñozen olerkiak, baita Fermin Muguruzak egindako kanta ere. Hitzei dagokienez, emakumeen inguruan egiten dut berba, eurek munduko leku desberdinetan pairatzen duten egoeraz batez ere, "género torturaz" ere aritzen naiz, baina ez gizona-koengan



ematen ez delako baizik eta emakumezkoenaz hitz egitea erabaki nuelako.

**-Onna izenburuak emakumea esan nahi du japonieraz, euskaraz irakurrita zentzu baikorra dauka, hitz joko horri helduta jarri zenion izenburua diskoari?**

-Ez, ez... horrela sortu da eta oso ondo dago (ja, ja, ja)... Japonian biran aritu nintzenean dutxak eta bainuak hartzeko lekuetan bururatu zitzaidan; igerileku erraldoiak, algekin; alga gabekoak, ur beroarekin, ur hotzarekin... zeuden bertan, desberdinak gizona-koentzat eta emakumezkoentzat, eta emakumezkoenetan zegoen irudia izugarri gustatu zitzaidan, oso polita iruditu



# SORKUN, mendebalde eta ekialde arteko emakumezko ahotsa

zitzaidan eta handik atera nuen... Baina azken finean jendeak ikustean zentzu bikoitzarekin hartzen du eta bere burutapen propioak ateratzen ditu.

**-Zure talde berria gasteiztarrez osatuta dago... Gasteizko karriketan ere askotan ikusi ahal zaitugu. Zein da Sorkunek gure herriarekin daukan erlazioa?**

Urte eta erdi egon nintzen Gasteizen bizitzen eta Hedegile kaleko denda batean lan egin nuen; hori dela eta, egun nagoen musikari hauek guztiak ezagutu nituen, hau da, Neu Bat taldeko Atxus eta Kanba, Atomoogeko Iker eta Sharon Stonerreko Egoitz. Erlazioa izaten jarraitu genuen eta jakin nuenean disko berria egingo nuela, jende honekin guztiarekin gogoratu nintzen. Honetaz gain, Gasteizen lau hilabete eman ditut entseiuak direla eta.

**-Gasteizko Gaztetxean egon**

**zara dagoeneko, noizko hurrengo agerraldia gure herrian?**

Beno niri gustatuko litzaidake uda parterako baten bat egitea, Gasteizko jaietan aritu nahiko nuke, baina ordura arte ez da posible izango kontzertu nahikotxo baitaute tartean, esaterako otsailaren 7an Zestoan joko dugu, 8an Donostian, 14an Lemoan, Berrizen 15ean eta Elorrion 28an, eta denak bertako gaztetxeetan izango dira.

**-Zure kontzertuetan gainontzeko euskal taldeak ikusteko parada ere badago...**

Bai horrela da, kontzertuetan jende desberdinarekin jotzen saiatzen gara, hala nola, orain arte eta besteak beste, Zea Mays, Kokein, Neu Bat eta Sharon Stonerrekoekin aritu gara; izan ere, talde barruan talde ezberdinetako kideak ditugunez aukera aprobetxatzen dugu.

## LURRA

... Nire herriko laino beltzak bezalakoa naiz. Laino beltzak nere barnean ditut. Nire herriko mendi berdeak bezalakoa naiz. Bere hezetasuna hanken artean dut. Neguaren usaina itsasoaren gatzarekin nahasten da. Eta hortik sortzen zara zu, eta ni, eta emetasun osoa.

**Hitza:** Sorkun

**Musika:** Sorkun, Kanda, Atxus, Iker, Home

Hilabete honetan Sorkunen CDa zozketatzen dugu, erantzuna asmatzen duzuen guztion artean: Nondik dator Onna izenburua?

Bidali erantzuna e-mailez edo postaz (3. orrialdean)



## Naturaren isladak



Zanga (*Sula bassana*)



NUNCA MÁIS



bidaiak

# basamortuaz blai



testua eta argazkiak: xabier errasti 'jerras'  
(geu-k itzultitako testua)

Sinai basamortuan izan nintzen lehen aldia igarotze hutsa izan zen. Taldekideei dirua uzteko eskatu, itzultzeko txartela aldatu eta Jerusalem-en egun batzuk gehiago egon ostean, mugaranzko autobusa hartu nuen, han, Aqaba golkoan.

Lur hiruki batek, Egipto eta Israelen arteko liskarbideak, urrutiko amets bat betetzetik banantzen ninduen. Niloaren heritik gertu-gertu nengoen.

Uste dut orduan izan zela basamortuekin zeharo maitemindu nintzenekoa; nahi gabe topatu bainuen.

Oraindik uda zen eta asfaltoak irakiten zuten. Berotik "babestua", leihatilatik berotik erretako, eguzkiak urratutako mendi horiek ederresten nituen. Autobusa agertzen zen muino bakoitzeko, paisajea formaz aldatzen zen, gero eta berriago, kolorea ere aldatzen zuela. Guztiz bitxia. Hunkigarria.

Geroztik ezer ez naizela badakit. Basamortu batean murgiltzen naizen guztietan umilago dakusat nire burua, eta ez dit axola. Basamortuaren bila dabilena bere buruaren bila dabilela diote. Ez dakit, baina mugagabetasun hartan ia ez duzu zure burua aurkitzen, eta hori uste dut dela errealitatea: beste harri bat, patuaren zimurra, jaio bezain laster lurrintzen den tanta bat bezalakoa.

Urte ugari pasa ziren, beste basamortu batzuk bisitatuak neuzkan, gamelura igota nengoen, nomaden usadioen gainean zerbait



gehiago nekien, euren agurra egokiro ahoska nezakeen. Eta Sinai berriro ere ikusi nuenean bere baitara egin, nire izerdia bere harean eror zedin, bere ixiltasuna eta haizea entzun, suak piztutako izarra ukitu, amets amaigabe batean erre nahi izan nuen.

Bi egunez ibili nintzen, eta beren gauetan atsedean hartu. Lurraren kraska sentitu nuen nire boten azpian, ene begiak ezerezak hartu zituen patuak markatzen duen lerro jarraituari eusten nion bitartean. Urrutira, talja bat bakardade hartan bizirautera ausartzen zen, niretzat bakarrik. Euliak segika zebiltzan, ezin nintekeen bakarrik egon, ez nuen bakarrik egon behar.

Beduinoen sendiak errepide ondoan bizi dira, banekien. Gaua heldu aurretik beraingana iristen saiatuko nintzen.

Arrats horretan Land-Rover batek, non bi lagunek eta euren ahuntzak bidaiatzen zuten, harkaitz handiraino eraman ninduen. Horren azpian, hareazko bailaran, beti bildu ohi ziren, su zahar baten alboan, bango erre eta tea

edaten zuten gizonak; zeruaren koloreaz margotu begiez eta begirada sakon batez, zehartzen zaituena. Eurekin lo egin nuen, izarrezko manta batek estalita.

Hurrengo goizean asfalto utzi genuen. Elianek betiko bideetatik eramango ninduen, ibaien ibilgu lehorrari segituz, mendi eta haizpitarteetan barrena, gure gameluei tiraka.

Elerik gabeko bidaia izan zen, egiatia. Ixiltasunak inposatzen duen errespetuaz jabetu nintzen. Basamortuaren errimoa ulertu nuen, motela baina zorrotza, doia, estatikoa baina sumaezinezko mugimenduan; Elianen bitartez ezagutzen niharduen nabarduren unibertso bat, berak egunsentiarri otoi egitean eginiko keinu irmoei (baliagarriak berak goizeko suaren zirten pean lurperatzen zuen oratutako ogia egiteko orduan) so eginez; keinu aurreztaileak, nomada baten baxera urria ur-negar batekin garbituz.

Lehen unetik elkar ulertu genuen, eta hitzik gabe, bere eskuetan idatzia, kultura oso baten jakinduria irakurri ahal izan nuen.



**LANDAZURI IKASTOLA**

Adi 2003-2004 ikasturterako  
aurrematrikulazioari!

**OTSAILEAN**

'D' Erdiguneko  
eredua ikastola  
bakarra

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 5 • 01009 GASTEIZ - Tfnoa: 945 14 00 66

**RAFA TEJA ATELIER**



"Zetazko eta  
kotoizko ebunak  
eskuaz margotuak"  
- ZAPIAK -

**Arantza Arregui**

Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa: 945 13 33 59



# TXAHAL MASAILAK ARDO BELTZETAN ERREGOSIAK

sukaldaritza  
denbora-pasa



## OSAGAIK ETA PRESTAKETA

### Osagaiak

- Txahal masailak
- Irina
- Baratzuria - Azenarioa
- Porrua - Kipula
- Gatza eta piper-hautsa
- Brandy-a - Ardo beltza
- Txahal salda iluna

### Goarniziorako

- Txanpinoi txikiak egosita
- Patata-pure arina
- Kalabazin beteak

### Prestaketa

- Masailak ondo garbitu (gantza behar bezala kenduz), gatz eta piper-hautsaz gozatu, irinetan igaro, eta oliba oliotan gorritu bi aldeetatik.
- Puska handietan zatitutako barazkiak gehitu, eta gatz piska bat ere, eta tapaz estalita utzi dena erregosten, barazkiak gorritzen hasten diren arte.
- Brandy-az flanbeatu, ondoren ardo beltza gehitu, eta gainetik salda piska bat, dena ongi estali arte.
- Utzi dena egosten 2-3 orduz, masailak bigunak gelditzen diren artean.
- Puregailuaz saltsa birrindu, eta ondoren galbahetik pasatu, berriro sutan jarri eta gatzaz probatu.


## PLATERAREN ANTOLAKETA

- Masailak bi zatitan plateraren erdian jarri. Gora begira, saltsa bota gainetik, eta txanpinoi, kalabazin bete eta patata-pure arin batez apaindu platera.

## H i t z G e z i d u n a k

(LUMA)

H i t z G e z i d u n a k

|   |  |               |                    |   |         |   |                       |   |                    |   |                  |   |   |  |
|---|--|---------------|--------------------|---|---------|---|-----------------------|---|--------------------|---|------------------|---|---|--|
|  |  |               | Madarika zioa esan |   | Aurkitu |   | Beldurtiak, ikaratiak |   | Eraiste            |   | Jakituna, aditua |   |   |  |
|   |  |               | * Deitura          |   | Ni      |   | Kanpo, landa          |   | Oinarritzko edaria |   |                  |   |   |  |
|   |  |               | L                  |   | A       |   | N                     |   | D                  |   | A                |   | Z |  |
|   |  |               | U                  |   | R       |   | I                     |   |                    |   |                  |   |   |  |
| Abizenak  |  |               | D                  |   | E       |   | I                     |   | T                  |   | U                |   |   |  |
| Okela   |  |               | R                  |   | A       |   | K                     |   |                    |   |                  |   |   |  |
| Ezponda   |  | Ume           |                    | H |         | A |                       | U |                    | R |                  | A |   |  |
| Landare mota  |  | Infin., lortu |                    | W |         | A |                       | U |                    | R |                  | A |   |  |
| B   |  | E             |                    | L |         | A |                       | R |                    | G |                  | a |   |  |
| Poz   |  | O             |                    | R |         | I |                       | H |                    | O |                  | D |   |  |
| Ozenki  |  | G             |                    | I |         | X |                       | O |                    | S |                  | b |   |  |
|   |  | R             |                    | A |         | K |                       | I |                    | P |                  | a |   |  |
|   |  | R             |                    | A |         | K |                       | I |                    | P |                  | a |   |  |
| Iodoa   |  | Galioa        |                    | A |         | R |                       | I |                    | K |                  | E |   |  |
| Elkartasuna   |  | Ez eme        |                    | G |         | A |                       | I |                    | K |                  | E |   |  |
| A   |  | N             |                    | A |         | I |                       | T |                    | A |                  | S |   |  |
| U   |  | R             |                    | A |         | V |                       | A |                    | Z |                  | I |   |  |
| Legea   |  | A             |                    | R |         | A |                       | V |                    | A |                  | Z |   |  |
|   |  | I             |                    | P |         | A |                       | R |                    | I |                  | N |   |  |
|   |  | S             |                    | O |         | D |                       | I |                    | O |                  | A |   |  |
|   |  | 50            |                    |   |         |   |                       |   |                    |   |                  |   |   |  |
|   |  | 1             |                    |   |         |   |                       |   |                    |   |                  |   |   |  |
|   |  | A             |                    | R |         | A |                       | V |                    | A |                  | Z |   |  |
|   |  | I             |                    | P |         | A |                       | R |                    | I |                  | N |   |  |
|   |  | S             |                    | O |         | D |                       | I |                    | O |                  | A |   |  |
|   |  | 50            |                    |   |         |   |                       |   |                    |   |                  |   |   |  |
|   |  | 1             |                    |   |         |   |                       |   |                    |   |                  |   |   |  |
|   |  | A             |                    | R |         | A |                       | V |                    | A |                  | Z |   |  |
|   |  | I             |                    | P |         | A |                       | R |                    | I |                  | N |   |  |
|   |  | S             |                    | O |         | D |                       | I |                    | O |                  | A |   |  |
|   |  | 50            |                    |   |         |   |                       |   |                    |   |                  |   |   |  |
|   |  | 1             |                    |   |         |   |                       |   |                    |   |                  |   |   |  |
